

Ikuspegi analitikoak metabolomikan eta lipidomikan: teknologiak, erronkak eta etorkizuneko perspektibak

(Analytical approaches in metabolomics and lipidomics: technologies, challenges, and future perspectives)

Irene Calzado^{1,2*}, Manu Araolaza^{1,2}, Mikel Albizuri^{1,2}, Iraia Muñoa-Hoyos^{2,3}, Nerea Subirán^{1,2}

¹ Fisiologia Saila, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (UPV/EHU, 48940 Leioa, Bizkaia)

² Biobizkaia, Bizkaiko Osasun Ikerketa Institutua (48903 Barakaldo, Bizkaia)

³ Erizaintza I Saila, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (UPV/EHU, 48940 Leioa, Bizkaia)

LABURPENA: Zientzia omikoek ikerketa biomedikoa eraldatu dute, sistema biologikoen karakterizazio integrala ahalbidetzen dutelako geneen, RNAen, proteinen eta metabolitoen analisi koordinatuaren bidez. Zientzia horien artean, metabolomika eta lipidomika sistema biologikoak aztertzeko funtsezko tresna gisa finkatu dira, prozesu fisiologiko eta patologikoetan inplikaturako metabolitoak eta lipidoak modu globalean karakterizatzea ahalbidetzen baitute. Haien garapena estuki lotuta egon da teknika analitikoetan egindako aurrerapenekin, hala nola erresonantzia magnetiko nuklearrean (NMR) eta masa espektrometrian (MS), eremu horietan erabiltzen diren plataforma nagusiak baitira. NMRak erreproduzigarritasun handia eta analisi ez-suntsitzalea eskaintzen duen bitartean, MSak sentikortasun handia eskaintzen du; kontzentrazio oso txikiak detektatzeko gaitasuna baitu. Normalean, MSa banaketa teknikekin konbinatzen da, hala nola kromatografia likidoarekin (LC-MS), gas kromatografiarekin (GC-MS) edo elektroforesi kapilarrarekin (CE-MS). Horrek detektatu ahal diren metabolitoen kopurua eta haien identifikazioa hobetzen du. Era berean, injekzio zuzenean oinarritutako estrategiek, hala nola DI-MSak eta FIA-MSak, errendimendu handiko analisi azkarrak ahalbidetzen dituzte, nahiz eta mugak dituzten alde aurretik banaketa pausu bat ez egitearen ondorioz. Teknologia horiei esker, bereizi egin daitezke alde batetik sistema baten ikuspegi globala edota biomarkatzaileen aurkikuntzara bideratuak dauden estrategia ez-bideratuak, eta bestetik, konposatu espezifikoaren kuantifikazioan zentratutako estrategia bideratuak. Etorkizuneko hobekuntza

1

***Harremanetan jartzeko/ Corresponding author:** Irene Calzado, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Sarriena auzoa, z/g (48091 Leioa-Euskal Herria).  <https://orcid.org/0000-0002-1787-6792>, irune.calzado@ehu.eus

Nola aipatu / How to cite: Calzado, Irene; Araolaza, Manu; Albizuri, Mikel; Muñoa-Hoyos, Iraia; Subirán, Nerea(2026). “Ikuspegi analitikoak metabolomikan eta lipidomikan: teknologiak, erronkak eta etorkizuneko perspektibak”, Ekaia, 50, xx-xx. (<https://doi.org/10.1387/ekaia.28501>)

Jasoa: apirilak 10, 2026; Onartua: uztailak 25, 2026

ISSN 0214-9001-eISSN 2444-3225 / © 2026 UPV/EHU



Obra Creative Commons Atribución 4.0 Internacional-en lizentziapean dago

teknologikoez teknika horien sentsibilitatea, sendotasuna eta errendimendu handiko gaitasuna areagotzea espero da, eta horrek, azterketa klinikoetan erabili ahal izango diren biomarkatzaile berriak identifikatzea eta baliozkotzea erraztu dezake.

GAKO-HITZAK: Biomarkatzaileak, Lipidomika, Masa Espektrometria, Metabolomika, Erresonantzia Magnetiko Nuklearra.

ABSTRACT: *Omics sciences have transformed biomedical research by enabling the comprehensive characterization of biological systems through the coordinated analysis of genes, RNA, proteins, and metabolites. Among these sciences, metabolomics and lipidomics have become established as fundamental tools for the study of biological systems, enabling the global characterization of metabolites and lipids involved in physiological and pathological processes. Their development has been closely linked to advances in analytical techniques such as nuclear magnetic resonance (NMR) and mass spectrometry (MS), the main platforms used in these fields. While NMR offers high reproducibility and non-destructive analysis, MS stands out for its high sensitivity and its ability to detect compounds at very low concentrations. MS is typically combined with separation techniques such as liquid chromatography (LC-MS), gas chromatography (GC-MS), or capillary electrophoresis (CE-MS). This improves both the number of detectable metabolites and their identification. In addition, direct-injection strategies such as DI-MS and FIA-MS enable rapid, high-throughput analyses, although they present limitations due to the absence of a prior separation step. These technologies allow the distinction between untargeted approaches, aimed at obtaining a global overview of a system or biomarker discovery, and targeted approaches focused on the quantification of specific compounds. Future technological advancements are expected to enhance sensitivity, robustness, and high-throughput capabilities, facilitating the identification and validation of new biomarkers in clinical studies.*


KEYWORDS: Biomarkers, Lipidomics, Mass Spectrometry, Metabolomics, Nuclear Magnetic Resonance.

1. SARRERA

1.1. Zientzia omikoak

Azken urteotan zientzia omikoek izan duten garapen handiak, zelulen, ehunen eta organismoen osaera molekular konplexua modu zehatzago batean aztertzea ahalbidetu dio komunitate zientifikoari [1]. Diziplina hauen artean genomika, transkriptomika, proteomika eta metabolomika bezalako arloak topa ditzakegu, eta horiek geneen, RNAen, proteinen eta metabolitoen analisi handi eta koordinatuak ahalbidetu dituzte, hurrenez hurren. Zientzia omiko horiek prozesu biologikoen ikuspegi globala eskaintzen dute testuinguru fisiologiko eta patologikotan [2,3].

Genomikak eta transkriptomikak informazio genetikoa eta haren adierazpen potentziala ebaluatzen dute. Proteomikak geneen produktu funtzionalak aztertzen ditu, hau da, proteinak. Metabolomika, berriz, metabolitoak aztertzean zentratzen da, eta hori, jarduera zelularraren azken isla da (1. Irudia) [4]. Metabolomikak duen indargune nagusietako bat bere sentikortasun altua da. Sistema fenotipoarekiko hurbiltasun biologiko estua duenez, alterazio genetiko edo proteomiko txikiak funtsezko aldaketak eragin ditzakete metabolito mailan [5].



1. irudia. Zientzia omikoen oinarri diren konposatuak.

1.2. Metabolomika eta lipidomikaren bilakaera historikoa

Metabolomika sistema biologikoetan (zeluletan, ehunetan edo organismo osoetan) eta beste sistema konplexuetan (elikagaiak edo ingurumen-laginak) dauden metabolitoen (edo metabolomaren) multzoa sistemikoki aztertzen duen diziplina da. Metabolitoen barruan pisu molekular txikiko hainbat talde bereizten dira: lipidoak, aminoazidoak, peptidoak, azido nukleikoak, azido organikoak, bitaminak, tiolak eta karbohidratoak, besteak beste [6]. Pisu molekular txikiko konposatu horiek erreakzio metabolikoen produktu eta bitartekariak dira, eta zuzenean islatzen dute organismo batek une jakin batean duen egoera biokimikoa [6–8]. Metabolomak organismoak berak sortutako konposatu endogenoak zein exogenoak biltzen ditu, ingurutik edo dietatik datozenak, eta horrek genetikaren eta ingurune faktoreen arteko interakzioa aztertzea ahalbidetzen du [9].

Azken mendeetan metabolitoen inguruan burututako aurkikuntza eta karakterizazioa funtsezkoa izan da biokimikan. Metabolismoaren inguruko lehenengo xehetasunen ezagutza 1930eko hamarkadatik aurrera gertatu zen, teknologia analitiko aurreratu eta sentikorren garapenekin batera. Teknologia horien barruan erresonantzia magnetiko nuklearra (NMR) eta masa-espektrometria (MS) sartzen dira [10]. NMR teknika, Isidor Rabik deskribatu zuen lehen aldiz 1938an [11]. Geroago, 1946an, Blochek eta Purcellek NMRari buruzko lehen lan esperimentalak argitaratu zituzten, eta lan horiek analisi molekularrean aplikatzeko lehendabiziko oinarriak ezarri zituzten [12,13]. Masa-espektrometria, berriz, 1934an erabili zen lehen aldiz molekula organikoak aztertzeko helburuarekin [14]. Izan ere, gaur egun ezagutzen dugun eta masa-espektrometrian oinarritzen den metabolomika, 1959. urtean garatu zen gas-kromatografiarekin batera akoplatu zenean (GC-MS), edota 1974. urtean likido-kromatografiarekin akoplatu zenean (LC-MS) [15]. Hala ere, metabolomikan (eta proteomikan) lortu izan den aurrerapen handiena *electrospray* bidezko ionizazioarekin (ESI) eskuratu zen 1989an [16]. Handik gutxira, LC-ESI-MSan oinarritutako eta bideratu gabeko metabolomikaren lehen ikerketak egin ziren matrize biologikoak karakterizatzeko, eta berehala agerian geratu zen teknika horren potentzial handia [17,18].

"Metabolomika" terminoa, berez, 2000ko hamarkadaren hasieran sortu zen, analisi-teknologiek aldi berean milaka metabolito detektatzeko aukera ematen hasi zirenean [19]. Ordutik, diziplina honek jarduera zelularren profil edo aztarna metaboliko adierazgarriak sortzea ahalbidetu du, eta horrek, konposatu-mota ugari aldi berean aztertzeiko gaitasuna eskaini digu [20]. Metabolomikaren esparruan, lipidomika azpidiziplina garrantzitsu gisa agertu da, eta haren helburua lipidoak aztertzea da. Lipidoak funtsezko metabolitoak dira, uretan disolbaezinak dira, eta kontrara, polarrak ez diren disolbatzaile organikoetan disolbagarriak dira [21]. Horri esker, lipidoek ezinbesteko funtzioak betetzen dituzte egitura zelularretan, energiaren biltegitratzean eta seinaleztapen zelularrean esaterako, eta horrek ikerketa eremu interesgarrian bilakatu du lipidomika [22]. Lipidomika, 2003an sartu zen formalki metabolomikaren barnean, eta oso azkar hazi da metabolismo lipidikoa aztertzeiko funtsezko tresna gisa [23]. Lipidoek egitura eta funtzio zelularrean parte hartzeaz gain, prozesu patologikoetan ere parte hartzen dute [24], obesitatea, arteriosklerosia eta diabetesa bezalako gaixotasunekin hertsiki lotuta baitaude, besteak beste [25–27]. Markus Wenkek, esaterako, lipidomika proteomikarekin eta metabolomikarekin integratzearen garrantzia azpimarratu zuen 2005ean, gaixotasun konplexuak hobeto ulertzeko erraminta gisa [28]. Gaur egun, lipidomika eta metabolomika asko erabiltzen dira gaixotasunen biomarkatzaile berriak identifikatzeko, edota metabolismoaren alterazioen azpian dauden mekanismo molekularrak aztertzeiko [29,30]. Gainera, beste diziplina omikoeekin integratzea funtsezkoa izaten ari da gaixotasunei lotutako prozesu biologikoak eta mekanismo molekularrak modu osoago batean ulertzeko edota medikuntza pertsonalizatuaren esparruan estrategia diagnostiko eta terapeutiko berriak garatzeko.

2. DETEKZIO-TEKNIKAK METABOLOMIKAN ETA LIPIDOMIKAN

Metabolomika eta lipidomika diziplinarreko esparruak dira, kimika analitikoa, teknologia instrumental aurreratuak eta datuak aztertzeiko tresna sofistikuak biltzen baititu [6]. Bi estrategia nagusiren bidez landu daiteke: analisi ez-bideratua (*untargeted*) eta analisi bideratua (*targeted*). Bideratu gabeko ikuspegiak metabolito asko aldi berean detektatzea ahalbidetzen du, egoera metabolikoaren ikuspegi globala emateko eta biomarkatzaile berriak aurkitzea errazteko [31,32]. Aitzitik, analisi bideratua metabolito ezagunen multzo zehatz batean zentratzen da, eta horien kuantifikazio zehatza barne estandarrak eta kalibrazio kurbak erabiliz egiten da. Hori bereziki erabilgarria da metabolito espezifikoak baliozkotzeko [33,34].

Metabolomaren dibertsitate kimiko handiak (polaritatean, tamainan, egituran eta egonkortasunean, besteak beste) ezinezkoa egiten du metabolito guztiak aldi berean plataforma analitiko

bakar baten bidez aztertzea. Horregatik, ikuspuntu osagarriak beharrezkoak dira karakterizazio aberasgarriago eta osoago bat lortzeko, teknika bakoitzak bere muga eta abantaila espezifikoak baititu [35–38]. Alderdi horretan, gehien erabiltzen diren teknikak NMRA eta MSa dira. MS teknika, oro har, banaketa tekniketara akoplatuta erabiltzen da (eraginkortasun handiko likido kromatografia (HPLC), eraginkortasun ultra handiko likido kromatografia (UHPLC), GCa edo elektroforesi kapilarra (CE)), baina zuzeneko injekzioekin ere erabil daiteke (DI-MS edo injekzio bidezko fluxu-analisia (FIA-MS)) (1. taula). Banaketa-teknikek aukera ematen dute laginetan dauden metabolitoak detektatu aurretik bereiztu ahal izateko, interferentziak murriztuz eta haien identifikazioa eta kuantifikazioa hobetuz. Aldiz, injekzio zuzeneko teknikak profil metabolikoaren edo metabolitoen analisi azkarra egin nahi denean erabiltzen dira, ez baitute alde aurreko bereizketa-etaparik. Hala ere, teknika hauek gaitasun txikiagoa dute antzeko masak edo isomeroak dituzten konposatuak bereizteko.

1. taula. Protoiaren erresonantzia magnetiko nuklearra ($^1\text{H-NMR}$), fosforo-31-ren erresonantzia magnetiko nuklearra ($^{31}\text{P-NMR}$), masa espektrometriari akoplatutako eraginkortasun handiko likido kromatografia (HPLC-MS), masa espektrometriari akoplatutako eraginkortasun ultra handiko likido kromatografia (UHPLC-MS), masa espektrometriari akoplatutako gas kromatografia (GC-MS), masa espektrometriari akoplatutako elektroforesi kapilarra (CE-MS), injekzio zuzeneko masa espektrometria (DI-MS) eta masa espektrometriari akoplatutako injekzio bidezko fluxu analisia (FIA-MS) teknika analitikoen konparazioa lipidomikan eta metabolomikan.

Teknika								
	NMR		MS					
	¹ H-NMR	³¹ P-NMR	HPLC-MS	UHPLC-MS	GC-MS	CE-MS	DI-MS	FIA-MS
Sentikortasuna	-	-	++	+++	+++	+	++	++
Erreproduzigarritasuna	Altua		NMR baino baxuagoa					
Bereizmena	Baxua	Ertaina	Altua				Baxua	
Kuantifikazioa	Bai, baina ez hain eraginkorra kontzentrazio txikietan		Bai, barne estandarrekin					
Laginaren prestaketa	Baxua (teknika ez-suntsitzaillea)		Ertaina	Ertaina	Altua (deribatizazioa)	Ertaina	Baxua	Baxua
Injekzio-bolumena	100-600 µL		10 µL	1-10 µL	1-2 µL	1-20 nL	1-10 µL	1-10 µL
Metabolito-tartea	Polarrak eta erdi-polarrak	Konposatu fosforilatuak	RPLC: erdi-polarrak eta apolarrak HILIC: polarrak		Konposatu hegazkorak	Polarrak eta ionikoak	Polarrak eta apolarrak	
Metabolitoen identifikazioa	Erraza		Zaila (ez dago datu-base bateraturik)		Erraza (liburutegi espektralak)	Zaila (ez dago datu-base bateraturik)		

2.1. Erresonantzia Magnetiko Nuklearra (NMR)

NMRa teknika espektroskopikoa da, eta nukleo atomikoen eta kanpoko eremu magnetiko baten arteko interakzioan oinarritzen da. Horri esker, metabolitoen egiturak identifikatu eta kuantifikatu daitezke [39,40]. Metodologia hori konposatu mota ugari detektatzeko eta kuantifikatzeko erabili daiteke, eta horren detekzio-muga mikromolar edo nanomolar mailakoa da [41]. Bere abantaila nagusien artean honakoak nabarmentzen dira: izaera ez-suntsitzailea, erreproduzigarritasun handia eta laginen prestaketa minimoa (1. taula) [42,43]. Gainera, NMRak metabolitoen egitura molekularrari eta ingurune kimikoari buruzko informazio zehatza azkar eta modu erreproduzigarrian lortzeko aukera ematen du, eta horretarako behar den analisi-denbora nahiko laburra da [44–47]. Hala ere, teknika horrek duen muga nagusia haren sentikortasun txikia da (1. taula), eta horrek zaildu egiten du kontzentrazio txikietan dauden metabolitoak detektatzea seinale ugariagoen bidez estalita gera daitezkeelako [48,49]. Bestalde, ohikoenak diren dimentsio bakarreko esperimenduak (1D-NMR), metabolitoen egituren antzekotasunak eta makromolekulen presentziak seinaleen gainjarpena eragin dezakete. Arazo hori konpontzeko bi dimentsioko teknikak (2D-NMR) erabil daitezke, non nahasketa konplexuek duten konposatuen bereizmena eta identifikazioa hobetzen den. Hala ere, horrek sentikortasuna eta errendimendu analitikoa murriztea dakar [50].

NMRaren barruan, ^1H -NMR teknika da gehien erabiltzen dena. Hidrogenoa oso atomo ugaria da molekula biologikoetan, eta, horri esker, metabolito mota ugari detektatu daitezke aldi berean [51]. Teknika hori analisi bideratu zein ez-bideratuetan burutu daiteke, baina analitoen kontzentrazio erlatiboki altuak eskatzen ditu (1. taula) [52]. Gero eta gehiago erabiltzen ari den beste modalitate bat ^{31}P -NMRa da, fosforodun konposatuak detektatzen dituen teknika (1. taula). Teknika hori bereziki baliagarria da metabolismo energetikoan eta seinaleztapen zelularrean inplikaturako metabolito fosforilatuak aztertzeko, hala nola ATPa, ADPa, AMPa, fosfokreatina, karbohidrato fosforilatuak eta nukleotidoak [53]. Lipidomikaren esparruan, ^{31}P -NMRak fosfolipido mota desberdinak aztertzeko eta kuantifikatzeko aukera eskaintzen du [54]. Bere abantaila nagusietako bat espektroan interferentzia esanguratsurik ez egotea da, fosforo nukleoak bakarrik detektatzen baititu, eta horrek interpretazioa sinplifikatzen du [53]. Hala ere, beste NMR modalitate batzuek bezala, sentikortasun-mugak ditu eta lagin-kontzentrazio handi samarrak behar ditu (1. taula) [51].

Muga horiek izan arren, NMRa asko erabili izan da hainbat testuinguru biomedikotan metabolitoak aztertzeko. Adibidez, alzheimerra edo prostatako minbizia bezalako gaixotasunei buruzko ikerketan erabili izan da, baita aminoazidoak, nukleotidoak, bitaminak, tiolak, karbohidratoak eta

peptidoak karakterizatzeko ere [55,56]. Konkretuki, Jung eta lankideek NMRA erabili zuten, garuneko infartuak dituzten pazienteen plasman eta gernuan patroi metabolikoen alterazioak ikertzeko, baita iktusari lotutako biomarkatzaile metabolikoak identifikatzeko ere [57]. Iktusa zuten pazienteen plasman laktato, pirubato, glikolato eta formiato kantitate handiagoak, eta glutamina eta metanol kantitate txikiagoak hauteman zituzten. Gernuan, berriz, zitrato, hipurato eta glizina maila txikiak topatu zituzten. Identifikatu zituzten biomarkatzaile horiek glukolisi anaerobioarekin eta azido folikoaren urritasunarekin lotu ziren.

2.2. Masa-Espektrometria (MS)

MSa metabolomikan eta lipidomikan gehien erabiltzen den teknika da, sentsibiltate eta detekzio-tarte handia duelako eta metabolitoen mailetan aldaketa txikiak identifikatzeko gaitasuna duelako [58,59]. Konposatuak kontzentrazio oso baxuetan analizatzeko aukera ematen du, pikomolar mailetara iristen da, eta ondorioz, lagin-bolumen txikiak behar izaten ditu NMRren aldean [60,61]. Gainera, NMRA baino bereizmen handiagoa eskaintzen du, eta horrek masa diferentzia oso txikiak dituzten konposatuak bereiztea ahalbidetzen du (1. taula) [62]. NMRan ez bezala, MSak metabolitoen detektagarritasunerako duen gaitasuna, neurri handi batean, duen ionizazio-eraginkortasunaren mende dago, eta, ondorioz, matrizearen konposizioaren eragina izan dezake [62].

Oro har, MSa bidezko analisiak aurretiazko banaketa etapa batekin konbinatzen dira, hala nola likido-kromatografia (HPLC/UHPLC), GCa edo CEa. Horrek murrizketa ionikoa minimizatzen du, eta metabolitoen identifikazioa hobetzen du masa/karga erlazioaren (m/z) arabera. Murrizketa ionikoa fenomeno bat da non oso hurbil eluitzen diren konposatuek ionizatzeko lehiatzen baitira, eta haien ionizazio-eraginkortasuna murrizten baita. Ondorioz, seinalea murrizten da, eta horrek eragina izaten du detekzioan eta kuantifikazioan [63]. Bestalde, injekzio zuzena ere erabil daiteke (DI edo FIA), baina matrize biologiko konplexuetan aurretiko banaketa kromatografikoa gomendagarria izaten da [6,62]. Ikuspegi instrumentaletik, masa-espektrometro guztiek ionizazio-iturri bat eta masa-analizatzaile bat dituzte oinarritzat [64].

2.2.1. Ionizazio-iturria

Ionizazioa funtsezko urratsa da masa espektrometrian, analitoa ioi bihurtzeaz arduratzen baita [40]. Ionizatu ondoren, ioiak eremu elektriko edo magnetikoetatik masa-analizatzaileara garraiatzen dira. GC-MSaren kasuan, inpaktu elektronikoa (EI) da ionizazio-iturri ohikoena [44]. Bestalde, LC-MSan oinarritutako metabolomikan, presio atmosferikoko ionizazio kimikoa (APCI), presio atmosferikoko

fotoionizazioa (APPI), matrizez lagundutako desortzioa/ionizazioa (MALDI) eta *electrospray* bidezko ionizazioa (ESI) dira gehien erabiltzen diren ionizazio-iturriak [65]. ESIa lipidomikan eta metabolomikan gehien erabiltzen den ionizazio-iturria da, zatiketa handirik gabe metabolito mota ugari eraginkortasunez ionizatzeko aukera ematen baitu [22]. ESIa modu positiboan (ESI+) zein negatiboan (ESI-) erabili daiteke. Modu horiek teknikaren ahalmen analitikoa zabaltzen dute, konposatuen azterketa errazten baitute protoiak onartzeko edo galtzeko gaitasunaren arabera [66]. ESIa bereziki egokia da konposatu polarrak analizatzeko, eta APCIa eta APPIa egokiagoak dira konposatu apolarretarako. APCIa analitoak gas-faseko erreakzio kimikoen bidez ionizatzen dira, eta APPIa, berriz, erradiazio ultramorea erabiltzen da ioiak sortzeko. APCIa konposatu-mota gehiago detektatzeko gai da, eta APPIa sentikortasun handiagoa du konposatu apolarrekiko [67,68]. MALDIa, aldiz, molekula txikien (< 1000 Da) analisi azkar eta sentikorrerako tresna erabilgarri gisa finkatu da, lagin kantitate txikia behar baita eta gatz eta tanpoiekiko tolerantzia ona baitu [69].

2.2.2. Masa-Analizatzailea

Masa-analizatzaileei dagokienez, bereizmen txikiko eta handiko sistemak daude. Bereizmen handiko analizatzaileak, hala nola Q-TOF eta Orbitrap, funtsezkoak dira ikerketa ez-bideratuetan. Masa-desberdintasun txikiak dituzten konposatuak bereizteko aukera ematen dute eta zehaztasun handia dute masen determinazioan, metabolito ezezagunak identifikatzea erraztuz [70–72]. Q-TOFak kuadrupolo bat, talka-zelda bat eta hegaldi-denborako hodi bat (TOF) konbinatzen ditu, eta likido-kromatografiari akoplatuta erabili ohi da [63]. Kuadrupoloak ioi espezifikoak hautatzen ditu eta talka-zeldak haien fragmentazioa ahalbidetzen du. Ondoren, TOF analizatzaileak ioiak hegaldi-denboraren arabera bereizten ditu, edo beste modu batera esanda, haien m/z erlazioaren arabera. Orbitrap teknikak, berriz, eremu elektriko oszilatzaile batean biltegiratzen ditu ioiak, eta MS/MSa moduan jardun dezake, espektro osoak (full scan) masa zehaztasun handiarekin konbinatuz [62]. Ikerketa bideratuetan, kuadrupolo hirukoitza analizatzailea (QqQ) da lehentasunezko aukera nagusia, batez ere erreakzio anizkoitzen monitorizazio moduan (MRM), sentsibitate-, selektibitate- eta kuantifikazio-gaitasun zehatzak dituelako [73]. Diseinu horretan, lehen koadrupoloak ioi-aitzindaria hautatzen du, bigarrenak talka-zelda gisa jarduten du fragmentazioa eragiteko, eta hirugarrenak ioi-produktu espezifikoak hautatzen ditu [61].

2.2.3. Banaketa kromatografikoa erabiltzen duten teknikak

2.2.3.1. LC-MS

LC-MSa metabolomikan eta lipidomikan gehien erabiltzen den plataforma da. Ez du deribatizaziorik behar, eta hainbat egitura kimikoetako zein polaritate desberdinetako metabolitoak aztertzeke aukera ematen du [36,74]. LCaren barruan, modu osagarrian erabiltzen diren banaketa modu desberdinak daude. Alde batetik, alderantzizko fasedun kromatografia (RP) dago. Hori gehien erabiltzen den modalitatea da, eta polaritate ertain eta baxuko konposatuetarako aproposa da (1. taula). Banaketa kromatografikoa analitoen eta fase geldikorraren arteko interakzio hidrofobikoetan oinarritzen da eta ESia bezalako ionizazio-iturriekin bateratuz funtsezko tresna da ikerketa kliniko eta biomedikoetan [75–77]. Konposatu oso polarrak determinatzeko, berriz, interakzio hidrofilikodun kromatografia (HILIC) erabiltzen da (1. taula) [45]. Modalitate horretan, fase geldikor polarra eta disolbatzaile organikoetan aberatsa den fase mugikorak erabiltzen dira. Normalean, gradiente moduan lan egiten da; hau da, fase mugikorra gero eta akuosoagoa bihurtzen da (RPLCaren alderantzizkoa) [72].

Sistema instrumentalei dagokienez, eraginkortasun handiko likido kromatografia HPLCak asko erabili izan da MSarekin konbinatuta [6]. Hala ere, eraginkortasun ultra handiko likido kromatografiak UHPLCak edo UPLCak aurrerapen esanguratsuak ekarri dituzte aurreko teknikarekin alderatuz. UHPLC-MSak bereizmen eta sentsibiltate handiagoak eta analisi-denbora laburragoak eskaintzen ditu ohiko HPLCekin alderatuta (1. taula), nahiz eta lan-karga handiagoak ekarri [78]. Edonola ere, UHPLC-MSak metabolito gehiago detektatzea ahalbidetzen du, batez ere izaera polarrekoak, eta hori bereziki garrantzitsua da metabolito primario asko determinatzeko garaian [6]. Horregatik, UHPLC-MSa metabolomika eta lipidomikan etorkizun-handiko teknikatzat jotzen da [79–84].

UHPLCak, besteak beste, haurtzaroko pneumonia larria [85], diabetesa [86,87] eta Alzheimerra [88] aztertzeke erabili da, baita nutrizio arloko ikerketetan ere [89]. Zhou eta lankideek lipidomika ikerketa bat publikatu zuten non prostatako kantzerra zuten pazienteen plasman diagnostiko-potentziala zuten 35 lipido identifikatu baitzituzten. Lipido horien artean, diskriminatzeko gaitasun handia zuten 12 biomarkatzaile indibidual zeuden [90]. Minbizia zuten paziente horiek, oro har, lisofosfatidilkolina- (LPC), fosfatidilkolina- (PC), esfingomielina- (SM) eta eter fosfatidilkolina-maila (PCE) altuak zituzten, baina azido fosfatidikoaren (PA) mailak baxuak ziren. Gainera, biomarkatzaile guzti horiek fosfokolina talde bat duten lipidoak dira, eta horrek agerian uzten du molekula horiek prostatako minbiziaren garapenean duten garrantzia.

2.2.3.2. GC-MS

Masa-espektrometriara akoplatutako gas kromatografia (GC-MSa analisi metabolikoetarako erabili zen lehen tekniketako bat izan zen hainbat ikerketa-esparrutan, eta oraindik ere asko erabiltzen

da ikerketa ez-bideratuetan, bereziki metabolito hidrofiliaren azterketarako [91–94]. GC-MSan, ionizazio-iturri ohikoena inpaktu elektronikoa (EI) da, eta ionizazio “gogortzat” hartzen da LC-MSan erabilitakoekin alderatzen badugu [62]. Zatiketa zabalagoa eragiten duen arren, erreproduzigarritasun handia aurkeztun duen erreminta da. Izan ere, lortutako espektroak estandarizatutako espektroen datu-baseekin erraz alderatzeko aukera ematen baitu (1. taula) [97]. GC-MSan konposatuak hegazkorak eta termikoki egonkorak izan behar dira teknika honekin aztertu ahal izateko. Hala ere, metabolito askok ez dituzte baldintza horiek betetzen, eta normalean deribatizazio-etapa kimiko bat behar izaten da. Prozesu horretan, analitoen talde funtzionalak kimikoki aldatzen dira, deribatu espezifikoak sartuz eta metabolitoen hegazkortasuna zein egonkortasun termikoa handituz [93]. Prozesu horrek gas-fasean bereizteko deribatu egokiagoak sortzea dakar eta prozedura analitikoari konplexutasuna gehitzen dio (1. taula) [92].

Ma eta lankideek estrogenoen eskasiak eragindako obesitatedun arratoi-eredu batean metabolito endogenoen alterazioak aztertu zituzten, eta biomarkatzaile posibleak identifikatu zituzten GC-MS bidezko ikuspegi metabolomiko baten bidez [98]. Ikerketa horretan identifikatutako biomarkatzaileek ikuspegi orokor bat eman zuten aldatuta zeuden bide metaboliko ezberdinak identifikatuz: glukosaren metabolismoa, lipidoen metabolismoa eta aminoazidoen metabolismoa, besteak beste.

2.2.3.3. CE-MS

Masa-espektrometriari akoplatutako elektroforesi kapilarra (CE-MS), LC-MSa edo GC-MSa ez bezala, ez dago hain zabaldua metabolomikan eta lipidomikan [99,100]. Plataforma edo erreminta honek, batez ere, lagin biologikoetan dauden konposatu ioniko edo oso polarrei buruzko informazioa ematen du; hala nola ioi ez-organikoak, azido organikoak, aminoazidoak, nukleotidoak, nukleosidoak, bitamina hidrosolugarriak, tiolak, karbohidratoak eta peptidoak [101].

Banaketa elektroforetikoa konposatuen masa/karga erlazioan oinarritzen da, kapilar batean aplikatutako eremu elektriko baten eraginpean [102]. Bere abantaila nagusien artean, analisi-denbora laburrak, laginaren prestaketa minimoa, kapilar sinpleen erabilera eta disolbatzaile organiko eta erreaktiboaren kontsumo baxua nabarmentzen dira [103]. Gainera, lagin-bolumen oso txikiak behar ditu, 1 eta 20 nL bitarteko injekzioak, besteak beste, eta hori bereziki interesgarria da lagin-kantitate mugatuak daudenean [6]. Hala ere, CE-MSak bere erabilera murriztu duten zenbait muga ditu. Horietan nabarmenena, erramintak aurkeztu duen sentikortasun baxua da, baina hori kapilarrean sartutako lagin-bolumen txikiarekin dago erlazionatuta (1. taula) [104,105]. Era berean, CE ionizazio-iturriarekin

akoplatzea teknikoki oso konplexua da (oro har, ESI); fluxu-emari oso txikiak dira (nL/min tartean) eta kontaktu-elektriko egokia mantentzea beharrezko pausua baita [104].

CE-MS erabiliz, Sato eta lankideek, landareen hostotzan oinarritzko 56 metabolito-mailen aldaketa dinamikoak aztertu zituzten ordubeteko tarteetan, 24 ordutan zehar [106]. Adenina nukleosidoak eta nikotinamida koentzimak fosforilazio eta desfosforilazio prozesuen bidez erregulatuta zeudela ikusi zuten. Teknika honek, sistema biologikoetan osagaien arteko eskala handiko interakzioak ulertzea errazten du.

2.2.4. Banaketa kromatografikorik gabeko teknikak

2.2.4.1. DI-MS

Injekzio zuzeneko masa espektrometrian DI-MSan lagina zuzenean ionizazio iturrian sartzen da eta horrek aukera ematen du analisi azkarra egiteko eta metabolito asko aldi berean detektatzeko [107]. Gainera, sentsibiltate handia, erreproduzigarritasun ona eta prestaketa-denbora laburrak eskaintzen ditu (1. taula) [108]. DI-MSan gehien erabiltzen diren ionizazio-iturriak ESia eta MALDIa dira [108]. Era berean, irudi-teknologiak masa-espektrometriarekin (MS imaging) konbinatuz gero, ehunetako metabolito eta lipidoen banaketari buruzko informazio espaziala lor daiteke. Modu horretan, molekulek ehunaren barruan duten kokapenari buruzko informazio espaziala lortzen da, eta hori prozesu biologikoak aztertze oso baliagarria da [109–114]. Hala ere, aldeztatik ez banatzeak muga handiak dakartza. Lagin biologiko konplexuak zuzenean sartzeak matrize-efektuak eragin ditzake eta horrek ionizazioaren eraginkortasunari eragin diezaioke, hala nola murrizketa edo indartze ionikoaren bidez. Beraz, horrek emaitzen zehaztasunean eta erreproduzigarritasunean eragin dezake [115]. Horrez gain, lipidomikan bereziki garrantzitsua den isomeroen diskriminazioa erronka esanguratsua da DI-MSan, masa bereko konposatuak ez baitira behar bezala bereizten [108].

Furse eta lankideek, esaterako, DI-MSa erabili zuten amek eta haien haurrek eradoskitzean partekatzen duten esnearen bidez ezartzen den plasma-lotura aztertze [116]. Egileek frogatu zuten amaren plasmaren konposizio lipidikoa hauraren plasmarekin lotzen dela amaren esnearen bidez. Horrez gain, esnean triglizerido eta fosfolipido jakin batzuen eta hazkuntzarekin lotutako biomarkatzaile lipidikoen arteko loturak identifikatu zituzten. Lanak zuzeneko injekzioaren lipidomikak biomarkatzaileak aurkitzeko eta nutrizio goiztiarra aztertze duen potentziala nabarmentzen du, errendimendu handiko tresna azkarra baita.

2.2.4.2. FIA-MS

FIA-MSa zuzeneko injekzioan oinarritzen diren estrategien artean beste aukera bat da. Teknika honetan lagina etengabeko fluxua aurkezten duen fase mugikor batean sartzen da eta horren bidez, masa-espektrometrorantz garraiatzen da [117]. Errendimendu analitiko handieneko teknika da eta bereziki interesgarria da lagin serie handien analisisa behar duten ikerketetarako [118]. Hala ere, FIA-MSak ere bere mugak ditu alde zaurgarriak banaketa faltaren ondorioz. Matrize-efektuek erreproduzigarritasuna eta zehaztasun kuantitatiboa arriskuan jar ditzakete, eta erretentzio denborarik ez egoteak metabolitoen identifikazioaren espezifikotasuna murrizten du, batez ere bideratu gabeko ikerketetan (1. taula) [118]. Horregatik, estrategia hau konposatu espezifikoaren analisi bideratuetan erabili ohi da [118].

